

Gure gorputzak eta bideo bat



12 urtetik aurrera. Bigarren Hezkuntza | 10 - 20 saio

Gorputza

Feminismoa

Argazkilaritza

Bideoa

Autoerreferentziala

Cuerpos 1 #Santa Ageda obra abiapuntutzat hartuta, gure gorputza definitzen duen iruditeria bisualari buruzko ikerketa egingo dugu. Ikertutako iruditeria bisuala bera zalantzan jarri, irauli edo satirizatuko duen bideo bat sortzeko oinarria izango da ikerketa hau.

Helburuak

- Mirari Echávarriren obrara eta bere sormen prozesura hurbiltzea.
- Irudiek gure identitate-erakuntzan duten botereari buruz hausnartzea.
- Esperientzia sortzailea bizitzea ikus-entzunezko tresnetatik.
- Feminismoa ikasgelako begirada, prozesu eta zeharkako eduki gisa ulertzea.

Aipamenak

Solasaldia eta elkarrizketa Tabakalera (filma ikusten den denbora tartea: 08.29 - 20.12)
<https://vimeo.com/channels/elkarrizketa>

Jon Berger eta bere "Ways of seen" bigarren kapitulua https://www.youtube.com/watch?v=MDcyd_gYgYc

Mary Beard. BBCren seriea (Ingelesezt) https://www.youtube.com/watch?v=ijZnxdI7018&has_verified=1

I/C aldizkaria: "La imagen en los medios de comunicación" <http://institucional.us.es/revistas/comunicacion/6/4.2%20Loscertales.pdf>

Educación 3.0 aldizkaria <https://www.educaciontrespuntocero.com/experiencias/mapas-visuales/>

Bideo-edizioa. DaVinci Resolve: <https://www.youtube.com/watch?v=8VNn1VvDYoM>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Ikasleei, beraien burua adierazten duten eta identifikatzen diren gorputzen 3 irudi ekartzeko eskatuko diegu. Espazioan duen posizioagatik, duen edertasunagatik, bizitako esperientziaren batera garamatzalako, beste gorputz ezagun bat gogorarazten digulako edo nolabait miresten dugulako. Pertsona erreal edo fikziozko baten irudiak izan daitezke, irudi zehatz bat edo irudi sorta bat.

Irakasleak ekarritako adibide batzuk izan daiteke proposamena aurkezteko modua.

2. Galdera honi erantzungo diogu idatziz: Zer dago irudi horretan nirekin zerikusia duena? Adibidez: "Malgutasun hori izatea gustatuko litzaidake", "Nik antzeko ilea daukat", "Amonak eta arrebak antzeko eskuak dituzte", "Bizitako istorio bat gogorarazten dit".

3. Mirari Echevarriren Cuerpos 1 Santa Ageda lana ikusten dugu. <https://www.hamacaonline.net/titles/cuerpos-1-santa-ageda/>

4. 4 edo 5 laguneko taldeetan, filma komentatzen dugu, Mirari Nafarroako Museoko Santa Ageda irudiarekin identifikatzeko moduak zerrendatu nahian. Ikusizko mapa bat sortuko dugu (marrazkia - Collagea), 1. puntuko irudiak eta 2. puntuko testuak harremanaz.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Sortutako mapatik abiatuta, lantalde bakoitzak, irudikaturik senti daitezkeen irudi bat edo bi aukeratzen ditu adostasunez. Pertsona bakoitzak irudiaren eta bere bizitzaren artean ezartzen dituen istorio pertsonalak edo harremanak azalduko ditugu.

2. Irudiei buruzko ikerketa bat egingo dugu. Norberaren historia, bere erreferenteak (artearen historian, herri-kulturan, familia-albumetan bila dezakegu) eta testuingurua.

3. Bildutako informazio guztiarekin, gure historia pertsonalekin batera erabili daitezkeen bideo txiki bat sortzen dugu. Honako hauen artean aukeratu ahal izango dugu:

- Kontatzeko ahotsa:
 - Irudiak berak kontatuko balu bezala.
 - Egin duenak kontatuko balu bezala.
 - Begiratu edo erabiltzen duenak kontatuko balu bezala.
- Formatua:
 - Publizitate-iragarkia
 - Umorezko esketxa
 - Bideoklip musikala
 - Dokumentala

4. Honako zeregin hauek banatuko ditugu taldearen artean, hartu beharreko erabakiak eta denborak adostuz. Zereginak:

- Aukeratutako formatuari buruz ikertuko dugu.
- Gidoia idatzi dugu.
- Kokalekuak bilatzen ditugu, edo beharrezko atrezzo-elementuak sortzen ditugu.
- Bideoa audioetan pentsatuko dugu eta hauek bilatu edo grabatu egiten ditugu.
- Sekuentziak grabatzen ditugu
- Bideoa muntatzen dugu

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Bideo-forum programa bat sortuko dugu zinema-jaialdi gisa. Kartel bat sortzen dugu, gonbidapen batzuk egiten ditugu, logistika konpontzen dugu (non egingo dugun, zer behar tekniko ditugun) eta hezkuntza-komunitateari bertaratzeko gonbita egiten diogu.

2. Sortutako bideoak ikusiko ditugu, eta eztabaida hasiko dugu bertaratutako ikusleen eta bideoetan parte hartu duten ikasleen artean. Nola eraikitzen dugu garenaren ideia bat irudiei dagokienez?